

**OSAKIDETZAKO PROFESIONALAK SARS-CoV-19AREN KONTRA TXERTATZEKO
KANPAINA**

Osakidetza Zuzendaritzatik jakinarazi nahi dugu COVID-19ren aurkako txertaketa planifikatutakoaren arabera egiten ari dela (lehenik egoiliarak eta adinekoen egoitzetako langile soziosanitarioak; ondoren, osasun-langileak).

Gaur, urtarrilak 13, iritsi dira Moderna txertoaren lehen dosiak. Osakidetza osasun-langileei emango die txerto hau, mugitzeko eta manipulatzeko duen zailtasuna eta 65 urtetik beherako pertsonen artean duen emaitza hobea kontuan hartuta. Eskuragarri dauden dosiak ahalik eta lasterren hasiko dira ematen, salbuespen gisa, osasun-arloko profesionaletan. Ezohiko txertaketa hori Gurutzetako Ospitalean hasiko da.


Azaldu den legez, COVID-19aren aurkako lehen txertoak kopuru mugatua eta modu mailakatua eskuragarri daudenez, txertatu beharreko profesionalen lehentasun-ordena ezarri behar da. Talde horiek txertoa dutenean, eta/edo eskuragarri dauden txerto-kopurua handiagoa denean, Osakidetza beste profesionalei txertatzen joango gara.

Txertaketa erakundeetako txertaketa-talde espezifikoek egingo dute, zerbitzu-erakundeetako Prebentzioko Oinarrizko Unitateekin (POU) koordinatuta. Txertoa jarriko zaien langileei non jarri behar duten esango zaie, eta egun eta ordu jakin batean emango zaie txertoa.

Osakidetza Zuzendaritzatik gogorarazi nahi dugu oso garrantzitsua dela profesionalen artean txertaketa-tasa handia lortzea, ahalik eta eraginkorra izan dadin.

Osakidetza intranetaren esteka honetan:
<https://www.osakidetza.eus/sites/Intranet/eu/covid/Vacunaci%c3%b3n/Orriak/default.aspx>,
eskuragarri dago hasiko den txertaketa-kanpainari buruzko informazioa, besteak beste:

- EAEko SARS-CoV-2 txertaketari buruzko informazio-dokumentua
- Eman beharreko txertoaren fitxa teknikoa. (Gaur egun Pfizer/BiNTech enpresak emandako txertoa). Beste txerto batzuk sartzen diren heinean, dagokion informazioa ere jasoko dugu.
- Kontraindikazioen eta txertaketak izan ditzakeen kontrako efektuen informazio-oria.



Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

Maria Rosa Pérez Esquerdo
ZUZENDARI NAGUSIA



Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA